

EBBren ADIERAZPENA 2020KO ABERRI EGUNARI BEGIRA

Salbuespen egoera batean murgilduta, inguruabar tragiko eta mingarriek inguratuta ospatuko dugu lehen Aberri Egunaren 88. urteurrena. Zazpi Euskal Herrialdeetan gaude bakoitza gure etxean sartuta, hainbat pertsona hil dira koronabirusaren eraginez, pandemia honetan milaka pertsona daude ospitaleratuta eta dozenaka mila lanpostu arriskutan, gure herriko egitura ekonomikoak gogor kolpatzen ari den osasun-krisi baten ondorioz. Horren egoera konplexuan, Aberri Egunaren aurrean gure Alderdiaren lehen begiradak jendearentzat izan behar du, gaur egun gaixotasunaren ondorioz sufritzen ari diren euskal emakume eta gizonentzat, lana galtzeko beldur direnentzat edo beren bizitza leiho eta balkoietatik baldintzatuta ikusten dutenentzat. Eta ezbehar guztiak gorabehera, gure gizartean itxaropena eta konfiantza proiektatzeko begirada izan behar du, itxaropena gure Aberrian eta bere etorkizunean. Itxaropena eta lan nekazina gauden egoera honetatik ateratzeko. Horixe da asteotan gaixotasun hilgarri horrek jo dituen emakume eta gizon guztiak omentzeko daukagun onena. Beraiek ezin izango dute gurekin Euskal Aberriaren Egun Handia ospatu. Beren senideek penaz egingo dute, galerak eragiten dien tristura handiarekin. Bihotz-bihotzez, gure doluminik sentikorrena denentzat. Eta beraiekin guztiakin partekatzen dugun min horrekin, hitza ematen diegu gogoan izango ditugula. Gogoan izango ditugu daukagun onena emateko, gaixotasunari aurre egiteko, egoera gainditzeko eta al bait arinen normaltasuna berreskuratuzeko.

Aberri Egunaren historia hurbiletik aztertzen badugu, bere 88 ospakizunetatik, ia erdiak baldintza berezietan ospatu behar izan dira. Hiru urte gerra baten erdian, berrogei gehiago diktaduran, klandestinitatean eta erbestean. Baina, zailtasun eta oztopo guztien gainetik, beti ospatu eta aldarrikatu dugu "Euskotarren Aberria Euskadi da". Esaldi soil bat da, baina bere baitan gordetzen ditu Herri batek aske izateko daukan nahia eta helburu hori betetzera begira berak aukeratutako erakundeez eta legez hornitzeko eskubidea. Aurten, koronabirusa eta horren ondorio gaiztoak gorabehera, abertzaleok ere gure eguna ospatu eta Euskal Aberria aldarrikatu behar dugu. Ospakizun bat eta aldarrikapen bat, osasun neurriek etxeko eta familien intimitatean egitera behartuko gaituena, baina euskal lurzoruan egingo dugu, Herri hau antzina-antzinatik hartu duen lurraldean, datozen mendeetan ere hartzen jarraituko duelarik.


Uste osoa daukagu Herri honen etorkizunean, euskal gizarteak edozein erronkari aurre egiteko daukan indar, kemen eta gogoan. Bide hori egiteko gaitasuna duten erakundeak ditugu, urratsez urrats Euskadi aske eta burujabea eraikitzen eramango gaituztenak. Gure motorea, ideologia abertzaletik harago, euskal gizartearen desioa eta erabakia direlako. Gure motorea da eta gure lehentasuna izan behar du. Euskal herritarrek zaintzea eta babestea da gaur egun Euzko Alderdi Jeltzalearen lehentasun

nagusia, Herri honetako erakunde guztietan ordezkatzeko gaituzten emakume eta gizon guztienak. Gure herrikideak zaintzea eta babestea da gaur egun Aberrigintza egiteko modurik onena. Gure Herriaren etorkizuna bermatzeko erarik zuzenena. Osasun eta ekonomia aldetik bizi dugun makalaldi honetatik ateratzea da, beraz, gure premiarik handiena. Helburu horrekin hitzemanda gaude, eta lan horri ekingo diogu buru belarri hurrengo hilabeteotan.

Gaur egun osasun arloko milaka eta milaka profesional, esparru sozio-sanitarioko langileak, oinarrizko zerbitzuetako eta segurtasuneko langileak egiten ari diren bezala, denak ari dira koronabirusaren aurkako borroka honetan. Gure abertzaletasuna, euskal nazio-kidetasun sentimendu eta ideologia hau partekatu ala ez, gure begietara denak dira abertzale eredugarriak, hori baita abertzaletasunik onena: gure gaitasun guztiak eskaintzea Herri honen eta bertako kide bakoitzaren onerako. Gure esker onik zintzoena, gure omenaldirik hunkituena haientzat. Ez dugu sekula ahaztuko egun eta aste latz hauetan egiten ari diren lan zoragarri eta ederra. Halaber, gure esker onik zintzoena euskal erakunde guztiei, Eusko Jaurlaritzaren buru dela, Aldundiei eta Udalei. Koronabirusaren krisiak proban jarri du, proba gogorrean, horien guztien gaitasuna, eta, egoera konplexua izan arren, egiaztatzen ari gara esku onetan gaudela, gure erakundeek funtzionatzen dutela eta gure herri ordezkariak erantzukizun handiz ari direla beren eginkizunak betetzen.

Osasun krisi hau egun batean amaituko da, hainbat giza bizitza bidean galdu ondoren. Baina hori amaitutakoan egoera sozial eta ekonomiko latzari aurre egin beharko diogu, eta egoera horrek gu guztioi ere eskatuko digu abertzaletasuna eta ahalegina. Herri-plan erraldoi bat jarri beharko dugu abian, krisi honek familietan, enpleguan eta enpresen jardueran dituen ondorio izugarriak arintzeko. Gaur, adierazpen honetan gogoratu behar ditugu beren negozioak itxi behar izan dituzten pertsonak, beren lanbideak desagertuta ikusi dituzten milaka eta milaka langile autonomoak. Baita langabezia geratu diren milaka langileak edo ERTE baten mende geratu direnak ere. Milaka eta milaka herrikide dira orain beren egoerarekin eta enpleguarekin zer gertatuko ote den galdetzen ari direnak. Guri dagokigu erantzun itxaropentsu eta fidagarria ematea. Beste batzuetan bezala, oraingoan ere jakingo dugu elkarrekin ateratzen orain gaindiezina dirudien baina, zalantzarik gabe, gaituzteko dugun egoera batetik. Lanean jarri gara dagoeneko.

Aberri Egunaren historiak argi erakusten du Euskadik bere askatasun nazionala lortzeko egin behar izan duen bidea ez dela sekula bide erraza izan. Orain ere ez. Baina beti jakin izan dugu une latzak gaituzteko, eta inoiz ez dugu gure adorea galdu, ez dugu sekula lurra jo. Guztiz alderantziz, ezbeharrek akuilu gisa balio izan digute, aurrera egiteko akuilu gisa. Hori da gaur gizarte gisa bultzatu behar gaituzten espiritua. Hemendik aterako gara, jakina aterako garela! Eta gizarte gisa indartuta ateratzea lortu behar dugu. Gu eta gure erakundeak. Pandemia globala da, osasun, gizarte eta ekonomia arloko ondorioak globalak dira, baina zoritxarrez gaur egungo mundu hau ez da gai erantzun globalak emateko, Europa ere ez da horretarako gai izaten ari. Horregatik guztiagatik, beharrezkoak dira tokian tokiko erantzunak, oinak lur gainean



sendo jarrita eta inguratzen gaituen errealitatea ondo ezagututa. Horregatik, gaur eta hemen aldarrikatu nahi dugu euskal erakundeek gaitasun osoa izan behar dutela aurrean dugun lan handia egiteko beharko diren tresna eta eskumen guztiak beren eskuetan izan ditzaten. Beste guztiakin elkarlanean, koordinatuta eta lan solidarioa eginez, jakina, baina erakundeen arteko errespetuarekin eta leialtasunarekin. Horixe izango da etorkizunera begira izango dugun helburu garrantzitsu bat. Duela berrogei urte Euskadiko erakundeak sortzeko hasi zen prozesuak erabakitasunez jarraitu behar du. Globalizazioz eta nazioz gairik prozesuz betetako aro berri hau birus hilgarriak esportatzeraino iritsi da, eta argi eta garbi erakutsi behar digu Euskal Herriak inguruko Nazioek dituzten aukera eta gaitasun berberak izan behar dituela. Hori da gure Alderdiak datozen garaiotarako izango duen helburu nagusia: Euskadirentzat ahalik eta autogobernu mailarik handiena eta euskal herritarrentzat erabakitze gaitasun mailarik handiena lortzea, herri hau bere etorkizunaren jabe izan dadin.

Askatasun eguzkia basotik irten da. Askatasunaren eguzki horrek, eguzki sendagarri horrek laster berotuko ditu euskal herritarren gorputzak eta kontzientziak. Egunotan bizi ditugun egunak egunsentia baino lehenagoko orduak bezalakoak dira, itzal eta laino beltzez betetako momentuak dira. Baina laster iritsiko dira argitasuna eta eguzki-printzak, eta iluntasuna eta lainoak desagerraraziko ditu. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar-Euskadiko abertzale guzti-guztiak, mundu zabalean banatuta dauden abertzale guztiak, munduko Euskal Etxeen inguruko abertzale guztiak deitzen ditugu gure Aberri Eguna ospatzera. Gaur, gure etxeetatik eta balkoietatik, gure Ikurrinekin, eta etorkizun hurbilean Herri honetako kale eta herrietatik, harrotasun handiz aldarrika dezagun abertzaleak garela, Euskal Aberria dela gure aberria, gure etxea, Euskadi aske eta osasuntsua, bakean bizi dena.


Gora Euskadi Askatuta!!!

MANIFIESTO DEL EBB EN TORNO AL ABERRI EGUNA 2020

En circunstancias excepcionales, trágicas y dolorosas conmemoramos este año el 88 aniversario del primer Aberri Eguna. Con la población de los siete Herrialdes vascos en situación de confinamiento en nuestros hogares, con muchos muertos a causa del coronavirus, con miles de personas hospitalizadas por la pandemia y con decenas de miles de puestos de trabajo en riesgo por una crisis sanitaria que está golpeando fuerte a las estructuras económicas de nuestro País. En condiciones tan complejas, la primera mirada de nuestro Partido en torno al Aberri Eguna tiene que ser para la gente, para las vascas y vascos que hoy sufren por la enfermedad, tienen miedo a perder su trabajo o ven su vida condicionada desde ventanas y balcones. Y tiene que ser una mirada que, a pesar de todas las adversidades, proyecte esperanza y confianza en nuestra sociedad, en nuestra Nación y en su futuro. Esperanza y trabajo incansable para salir de esta situación es el mejor homenaje a las mujeres y hombres que han perecido estas semanas a causa de la letal enfermedad. Ellos y ellas no podrán celebrar con nosotros el Día de la Patria Vasca, sus familiares lo harán con la tristeza por la pérdida. Nuestro más sentido pésame. Y con ese sentimiento de dolor compartido también les damos nuestra palabra de que su recuerdo nos impulsará para dar lo mejor que tenemos para vencer a la enfermedad y recuperar cuanto antes la normalidad.

Si repasamos la historia del Aberri Eguna, de sus 88 celebraciones, prácticamente la mitad se han tenido que celebrar en condiciones especiales. Tres años en medio de una guerra, cuarenta más en dictadura, clandestinidad y exilio. Pero siempre hemos celebrado, por encima de dificultades y obstáculos, que “Euskadi es la Patria de los Vascos”, una simple frase que encierra el deseo y el derecho de un Pueblo a ser libre y a dotarse de las instituciones y leyes que decida para hacer realidad ese objetivo. Este año, a pesar del coronavirus y sus maléficas consecuencias, las y los abertzales tenemos también que volver a celebrar nuestro día y reivindicar la Nación Vasca. Una celebración y una reivindicación que las limitaciones sanitarias van a obligarnos a hacerlas en la intimidad del hogar y de las familias, pero lo haremos sobre suelo vasco, un solar que ha acogido a este Pueblo desde tiempo inmemorial y que lo seguirá haciendo en los siglos venideros.

Creemos en el futuro de este País, en la fuerza, las ganas y la determinación de la sociedad vasca para afrontar cualquier reto, y contamos con unas instituciones capaces de liderar ese camino que, paso a paso, nos lleva a la construcción de una Euskadi libre y soberana. Porque nuestro motor, más allá de nuestra ideología abertzale, es el deseo y la decisión de la sociedad vasca. Es nuestro motor y debe ser también nuestra prioridad. Cuidar y proteger a vascos y vascas es hoy la prioridad del Partido Nacionalista Vasco y de todas sus mujeres y hombres repartidos por las instituciones del País. Cuidar y proteger a la ciudadanía es hoy la mejor manera de construir Nación. De garantizar nuestro futuro como Pueblo. Salir de esta situación de postración sanitaria y económica es, por tanto, la urgencia máxima. Ese es el objetivo en el que estamos comprometidos y en el que nos vamos a centrar en los próximos meses.



Como lo están haciendo hoy miles y miles de profesionales sanitarios y sociosanitarios, personal de servicios esenciales y seguridad que están en la primera línea combatiendo el coronavirus. Compartan o no nuestro sentimiento de pertenencia nacional vasca, a nuestros ojos, todas y todos ellos son abertzales ejemplares, porque ese es el mejor patriotismo posible: ofrecer todas nuestras capacidades para el bien de este Pueblo y de cada uno de sus integrantes. Nuestro más agradecido y emocionado homenaje para ellas y ellos. Nunca olvidaremos su abnegada y preciosa labor durante estos días y semanas tan complicadas. Un agradecimiento y un reconocimiento que hacemos extensivo al conjunto de las instituciones vascas, con el Gobierno Vasco al frente, a Diputaciones y Ayuntamientos. La crisis del coronavirus ha puesto a prueba, dura prueba, la capacidad de todas ellas y, a pesar de la complejidad de la situación, estamos comprobando que estamos en buenas manos, que nuestras instituciones funcionan y sus rectores están ejerciendo con alta responsabilidad sus funciones.

La crisis sanitaria, con un elevado tributo en vidas humanas, pasará. Pero luego deberemos afrontar una complicada situación social y económica que también va a exigir de todos nosotros y nosotras patriotismo y esfuerzo. Deberemos poner en marcha un gigantesco plan de País para paliar las tremendas secuelas de esta crisis en las familias, en el empleo y en la actividad de las empresas. No podemos por menos de acordarnos hoy en este manifiesto de los miles y miles de personas autónomas y autoempleados que han visto cerrados sus negocios y desaparecidas sus ocupaciones. Tampoco a los miles de trabajadores que han engrosado las listas del desempleo o a los que están incluidos en ERTes. Son miles y miles de compatriotas quienes se preguntan ahora qué va a ser de su situación y de su empleo. A nosotros y nosotras nos corresponde darles una respuesta esperanzada y confiada. Como en otras ocasiones, también esta vez sabremos salir juntos de una situación que ahora parece insalvable pero que superaremos sin duda. Ya estamos manos a la obra en ello.

La historia de los Aberri Eguna ilustra a las claras que la senda de Euskadi hacia su emancipación nacional no ha sido nunca un camino ni fácil ni sencillo. Tampoco lo es ahora. Pero siempre hemos sabido sobreponernos a las adversidades y nunca hemos caído como pueblo en el desánimo. Al contrario, las adversidades nos han servido de 'akuilu', de acicate para avanzar. Ese es el espíritu que debe animarnos hoy como sociedad. Saldremos de esta, claro que saldremos de esta. Y tenemos que conseguir que salgamos reforzados como sociedad y también nuestras instituciones propias. La pandemia es global, las consecuencias sanitarias, sociales y económicas son globales, pero desgraciadamente este mundo actual no es capaz de dar respuestas globales, ni tan siquiera Europa está siendo capaz de hacerlo. Por todo ello se hacen necesarias las respuestas propias, pegadas al terreno y basadas en el conocimiento de la realidad circundante, en nuestro caso la vasca. Por eso reivindicamos hoy la capacidad plena de las Instituciones Vascas para disponer en sus manos de todos los instrumentos y competencias necesarias para abordar una tarea tan ingente como la que tenemos por

delante. En colaboración, coordinación y acción solidaria con los demás, por supuesto, pero desde el respeto y la lealtad interinstitucional. Ese va a ser también uno de nuestros objetivos futuros. La institucionalización plena de la nueva Euskadi, comenzada hace ahora cuarenta años, debe proseguir de manera decidida. La nueva era de globalizaciones y procesos transnacionales, que llega hasta el extraordinario extremo de exportar virus letales, nos debe hacer conscientes de que el Pueblo Vasco ha de tener las mismas oportunidades y capacidades que las Naciones de su entorno. Ese es el propósito de nuestro Partido en los próximos tiempos: conseguir para Euskadi las máximas cotas de autogobierno y capacidad de decisión para el Pueblo Vasco, y que sea así dueño de su destino.

Askatasun eguzkia basotik irten da. El sol de la libertad, ese sol sanador, volverá a calentar pronto los cuerpos y las conciencias de vascos y vascas. Estos días que estamos viviendo ahora son como las horas previas al amanecer, momento de sombras y nieblas, pero pronto llegará la claridad y los rayos del sol para disiparlas. Llamamos a todos los y las abertzales de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa e Ipar-Euskadi, así como a los repartidos por todos los confines del mundo y agrupados en las Euskal Etxeak, a celebrar y reivindicar nuestro día, el Aberri Eguna. Hoy, desde nuestras casas y balcones, con nuestras ikurriñas al viento, y en un mañana próximo, desde las calles y pueblos de este País, proclamemos con orgullo que somos abertzales y reivindicemos la Nación Vasca, una Euskadi libre, sana y en paz.

Gora Euskadi Askatuta!!!